



ISIDRO INDO ALKORTA, beste hondarribiar batzurekin batera azkenengo gerratean Gudari ibilia, da gaur **GURE PERTSONAIA**, laugarren orrialdean. Berarengana jo dugu, beste edozein Gudariarengana jo genezakeen bezala. Guztiekin ezin izanik, ISIDROrekin egon gara, baina Gudari guztiak ditugu goioan, Gernikako Bonbardeaketaren 50. urtemugan.

Hemen kontatzen dizkigu gerrateko gora beherak, eta Gernikako sutea, han suertatu bait zen 1937ko apirilaren 26an, aleman abioiek, espainolen aginduz, hiru ordu eta laurdenean botatako bonbek sutan jarri zutenean euskaldunon hiri sakratua.

Ezin izan dugu egin Hondarribiko Gudari guztien zerrenda, nahiz eta nahiko laburra izan. Horregatik, batzuren izenak ipini eta beste norbaitena ahaztuta geratu zen arriskuagatik, ez dugu inorenik aipatzen hemen. Den denak ditugu goioan euren Herriagatik, gure Herriagatik, hau da, **EUSKAL HERRIAGATIK** egin zuten zuten guztiagatik. Bizitzaren historian geratu dira idatzita gizon hauen izenak, eta beaurak dira gaurko Gudarien eredu eta isplu.

GERNIKA 37 - 87

Gernikako suaren printza itzali luteke batzuk, Euskaldunon askatasun egarria ere isil arazi nahi luteke betikoek.

Guk **Gernika** aipatzen badugu hemen, ez da gerrako amorruak eta ikusiezinak berpiztu edo guda ezagutu ez zutenen bihotzetan gorrotorik piztu nahi dugulako.

Gernika dakargu gure begietara, han zegoelako eta hantxe dagoelako **ARBOLA BEDEINKATUA, EUSKALDUNON ARTEAN GUZTIZ MAITATUA**.

BEDEINKATUA, ez haritz ederra delako, baizik bera delako Euskal Herriaren sinboloa. Bizkaiko Juntak biltzen ziren han, Euskal Herria libre zenean. Baina Gipuzkoak, Arabak, Nafarroak, Lapurdik, Nafarroa Beherak eta Zuberoak ere **Arbola** hartan jarri genuen zazpi probintzien euskaltasun eta askatasunaren ikurrak.

MAITATUA, aberriaren alde egin ziren eta egiten diren sakrifizio guztien bilduma delako, eta **GERNIKAKO ARBOLA** zutik dagoen artean, Euskal Herria ere biziko delako.

Horregatik nahi izan zuten erre **Gernika**, herri hura erreaz gure espiritua hil nahi zutelako. Baina herri osoa erre eta, Arbola zutik iraun zuen, eta gure animak ere bai.

Euskaldunon arnasa ez da itotzen hala edo hola. Gerrateak, heriotzak, gartzelak, desterruak, nahigabeak eta oinazeak

sufritzen ari da Euskal Herria mendeetan zehar. **Baina Herria zutik dago, Arbola bera ere zutik dagoen bezala.**

Berrogeita hamar urte igaro dira **Gernikako** bonbardeaketaz gero. Guk ez dakigu beste zenbat urte igaroko diren Euskal Herria aske izan arte. Baina ziur gaude etorriko dela Askatasun Eguna. Ziur gaude baita ere hori lortu arte ez duela atsedetik hartuko abertzale sentitzen den inork.

Askatasun Eguzkia basotik irtenda, bere argia edonun arin zabaltzen da.

Itzartu zaite euskotarrak!
Aupa euskaldun guztiak!
Gora! Gora antzinako Legia!

GERNIKAKO ARBOLA

1

Gernikako Arbola da bedeinkatua, Euskaldunon artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu munduan frutua, Adoratzan zaitugu Arbola Santua.

2

Mila urte inguru da esaten dutela Jainkoak jarri zuela Gernikako Arbola. Zaude, bada, zutikan orain ta denbora, Eriotzen bazera, erraz galdu gera.



Hondarribiko Gudariak Gernikako Arbolaaren azpian elkarturik.

ELKARTU BEHARRA

2

3

Ez zara eroriko Arbola maitea,
Baldin portatzen bada Bizkaiko Junta.
Laurok hartuko dugu zurekin partea,
Pakean bizi dadin euskaldun jendea.

4

Betiko bizi dadin Jaunari eskatzeko,
Jarri gaitzen denok laster belanikoa,
Eta bihotzetikan eskatu ezker,
Arbola bizik o da orain eta gero.

5

Arbola botatzea dutela pentsatu,
Euskal Herri guztian denok badakigu.
Ea, bada, jendea, denbora orain dugu
Erori gabetanik iduki biagu.

6

Beti egongo zera udaberrikoa,
Lore antzinetako mantxa gabekua.
Erruki zaitez, bada, bihotz gurekoa,
Denbora galdu gabe emanik frutua.

7

Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko
Eta bihotzetikan Jaunari eskatzeko,
Gerrarik nahi ez degu, pakea betiko,
Gure Lege zuzenak hemen maitatzeko.

8

Erregutu deiogun Jaungoiko Jaunari
Pakea emateko orain eta beti,
Bai eta indarra ere zerorren lurrari,
Eta bendizioa Euskal Herriari.

9

Orain kanta ditzagun lau bat bertso berri,
Gure probintziaren alabantzagari.
Arabak esaten du sugarrez betenik:
Nere bihotzkoa! eutsiko diat nik!

10

Gipuzkoa hurrena arras sentiturik,
Hasi da deadarrez ama Gernikari:
Erori ez zaitez arimatu neri,
Zure sendagarria hemen naukazu ni.

11

Hostoa berdea ta zainak ere fresko,
Nere seme maiteak! ez naiz eroniko!
Behartzen banaiz ere, egon beti pronto,
Nigandikan etsaia itzul arazteko.

12

Guztiz maitagarria ta ohoregarria!
Gerririk gaitzazu zeruko Erregina!
Gerririk gabetanik bizi ahal bagina,
Oraindaino izan degu guretzako diña.

Jose Mari Iparragirre

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 11-17: Erauskin
18-24: Mayi
25-31: Iraola

Ekainak 1-7: Erauskin
8-14: Mayi

Azkenengo HONDARRITZA aldizkarian
E.H.N.E.ko Biltzar Nagusiari buruz aipa-
tzen nuen. Gaur ere gai bera ukitzera noa,
baina Biltzarren bigarren zatia, alegia zer
egin behar dugun gure indarrak elkartze-
ko, eta gure baserriak horrela indartzeko.

Alde batetik gure baserriak txikiak di-
ra, gehienak behintzat. Gure baserrientzat
oso zaila da Europako baserriekin konpa-
ratzea. Kontutan edukirik 20.000 m² di-
tuen baserriak makinaria erosi behar du-
la, oso garesti ateratzen da.

Euskal Herriko Iparraldeko baserrieta-
ra begiratu behar genuke. Alde batetik guk
baino lur gehiago dute gehienek, eta gai-
nerra Gobernuaren aldetik ere guk baino la-
guntza haundiagoa jasotzen dute. Hala ere
oso gutxi dira norberak behar dituen ma-
kinak erosten dituztenak. Zer egiten du-
te? Normalean, auzoko hiru lau baserri el-
kartzen dira eta elkarrekin erosten dute
makinaria.

Horrela bi gauza lortzen dituzte: be-
rtik merkeago ateratzen zaiela hiru edo lau-
ren artean ordaintzea, eta bestetik base-
rriko lanak denen artean egitea, azkarra-
go eta hainbeste nekerik gabe.

Gure baserriek beste arazo bat ere ba-
dute, nahiko aldapa dutela alegia, eta ez
dela erraza erosi egitea lana. Aldapa
hauekin zer egin? Gutxienez planifikazio

on bat egin, eta jakin ea zer den hobea:
sorotarako ala zelaitarako eduki. Zelaietan
ditugun zulo eta mendiskak berdinuz, al-
de ederra edukiko genuke. Makinaria
haundiagoa sartuko genuke, eta azkarra-
goa.

Hobeto bizi behar

Guk ere beste lanetan egiten den be-
zala egin behar dugu. Beste ofizioetan as-
ko begiratzen da nola jokatu behar den
gutxiago nekatzeko eta bidebatez lan ge-
hiago ateratzeko. Baserritarrek oso ohi-
tuak gaude lanera eta nekera, baina oke-
rrak zuzentzen ikasi behar dugu lehenbat
lehen. Beti horrela egin dela eta horrek ez
du balio.

Eroso egiteak eta kosetxa ugariago es-
kuratzeak bentaja haundiak ekarriko diz-
kigu. Txikiena ez da izango gure abereek
behar dutena geuk geure lurretatik aterat-
zea, eta ez orain gabiltzan bezala ibiltzea,
belarra eta pentsua erosi eta erosi, gure
diru pixarrak besteei emanaz.

Noiz hasiko gara pentsatzan baserri-
tik soldata on bat ateratzen ikasi behar
dugula?

Ximón



Aspuma

TXANDAKO OKINDEGIAK

Maiatzak 10: Garmendia
17: Martinez
24: Arratibel
31: Garmendia

Ekainak 7: Martinez
14: Arratibel

EUSKARAZKO IRRATIAK

- Euskadi Irratia, Donostia 94,5 FM
- Gure Irratia, Baiona 89,6 FM
- Irulegi Irratia, Irulegi 93,2 FM
- Xiberoko Botza, Maule 94 FM
- Arrate Irratia, Eibar 101,50 FM

Hondarribiko traineruaren patroia izan zen **Jose Manuel Arriabalaga** eta bere emazte Mari Jose Muguruzaren 6 urteko alabatxoa Kattalin, Orioko albergean zegoela, zaldi baten ostiko larriki zauritua, apirilaren 7an hil zen Donostiako erite-txean. Ikastolako lagunekin hiru egun igarotzera joana zen, Gipuzkoako Aldundiak Orion daukan albergera, eta inguruko baserriko zaldiak ostiko buruan jo eta lurrera bota zuen.

Hondarribian lagun asko du sendi atsegabetu honek.

Herriko udaltzain edo aguazilek badute beti albiste berri bat. Lehengoan esaten genuen pistolaz harmatuko direla berehala; oraingoan beste bide batetik dator albistea: lau udaltzainek **judoko gerriko oria** lortu dutela. Beste bik lehendik zuten gerriko oria, eta beste batek **laranja**.

Kostako Jose Mari Arbelaitzek badu txakur berezi eta trebea, **Neska** izeneko, bost hilabetekoa. Zakurra eta honen jabea txapeldun geratu dira Torrelavegako lehiaketa batetan, eta orain Cannesko txapelketa internazionalera omen doa. Esan beharrik ere ez dago suertetik haundiena opa diogula Jose Marini. **Neskari** ere bai, nahiz eta honek ez irakurri gure aldizkaria.

Herriko Etxeko hoteletik igaroak ere ba dira banaka batzuk. Lau izan dira apirilaren Udaltzeko kalabozotan lo egin behar izan dutenak. Lau horietatik, bat bakarra herriko semea, S.F.A. 24 urtekoa. Mutil hau kotxetako kristalak puskatzen da trebea, eta "in fraganti" harrapatu zuten udaltzainek eta Donostiako juezari entregatu, baina juezak kaleratu egin zuen. Beste bisitariak, bat lungoa, eta beste biak Oreretakoak.

Tabernetako soinu, algarra, zarata, zala-parta, musika, iskanbila, etabarrek, beti bezala, bizi bizi irauten dute. Esperantza ederra laister datorren uda garairako. Nueguan eta udaberrian ez badago lo egiterik taberna inguruetan, zer izango da laister?

Erremediua badu, noski, neurri zorrotzak hartu eta bete erazi. Hainbestearino mereziko dugu, ezta?

Denerako dago jendea. Pakea behar dela, baina gero, **gutxien uste denean, borroak** sortzen dira.

Esan bestela, **Faroko kanpiñean**, bi silara zirela eta... Batak bereak zirela, besteak ere bereak. Nola konpondu arazoa? Murturka, ukabilka, jokal Eskerrak herriko udaltzainak agertu zirela berehala...

Aurtengo **ABERRI EGUNA** oso sonatua izan da, Gernikako Bonbardeaketaren 50. urtemugarekin batera egokitu delako.

Alderdi Abertzaleak bakoitza bere aldetik ibili dira egun horretan: **E.A.koak** Donostiako Polikiroldegira joan ziren; **H.B.koak** Gernikara; **E.A.J.koak** Bilboko Erakustokira; **E.E.koak**, Leioara. Hondarribian non aukeratu.

Hondarribian beste ekingiza batzuk ere antolatuta ziren **Gernikako suteaz oroitzeko**, eta egun triste hura betirako gogoangarri bihurtzeko.

Ekingiza hauen artean, **Arrantzaleen Benta onspatu zen Mahai Inguru** bat izan zen, Teodoro Hernandezenak eta Martin Ugaldel-k parte hartu zutelarik. Zuzentzailetzat, Pablo Sastre egon zen. Ez zen jende gehiegirik hurbildu bertara, baina oso interesgarria gertatu zen, bi gizon jakintsu eta abertzale horien ezpainenatik Euskal Herriaren historia gogoratzu.

Baita apirilaren 25an ere, **GUDARIEI OMENALDIA** eskaini zitzaizten Marixaka Elkartean, bazkari eta guzti. Bazkari hau GERNIKA 37-87 KOMISIOAK eratu zuen, hamalau Gudara hauek agerturik:

- ISIDRO INDO
- LUIS ASEGINOLAZA
- ANTONIO OIANGUREN
- GILLERMO ETXEBERRIA
- KAIETANO KAMIO
- TOMAS KANPANDEGI
- VALENTIN DILLA
- LUZIO CALVO
- ANTONIO ESPINO
- JOSE MARI GOROSPE
- FLORENZIO FELIPE
- ESKOLASTIKO LORENZO
- FELIPE LUJANBIO
- eta ARKOTXA JAUNA

Hamalau gizon hauei lagun eginez, beste hogeiren bat bildu ziren. Azkenean, marmolezko plaka bana eman zitzaizten.

Egun horretan bertan, gaueko hamarretan, **argi itzalketa** egin zen herrian, beti Gernika gogoratzu, eta kazuela tapaz, txapaz, eta ahal zen tresneriaz **zalaparta eta soinua** eginez bost minutuz.

KANDIDO SASETA, Euskal Gudarostearen Komandantea, hondarribiarra zela orain jakin dute batzuk. Kandidoren aita Hondarribiko maisua izan zen, eta honen semeak **KANDIDO**, **MARTIN** eta **JOSE MIGUEL**, hiruak hartu zuten parte gudara bezala.

Aitzol



Lapurreta sailera iritsi gabe ezin gara geratu inoiz ere. Izan ere, nahiz eta jendeak kontu haundia egon, hala ere lapurrek ongi ikasten dute non eta noiz egin euren fetxoriak.

Oraingo honetan, hauek aipatzen ditugu: bizikleta bat, ziklomoto bi. **Etxeetan** ere sartu dira, guk dakigunez: Guadalupeko Ama Iñ; Madalen karrikako leian; Txapelin baserrian; Beñat Etxepareko 3an; Belezta Markesen kaleko Guadalupe Enean. **Tabernetan**, berriz, Ortazararren; eta **dendetan**: Sokoako Supermerkatuan, bi bider. **Kotxeetan** ere saiatu dira kakoak, dozenaren bat kotxe miatu eta uztuaz.

San Markos eguna eguraldi ederrez opatu zen. Besoetakoei ilusio haundienaz jaso zituzten maldien opari gozoak. Gozoak eta garestiak. Lehen etxetan egiten baziren, orain gehienak pasteleria edo gozotegitara goaz opilak erostera. Etxekoak baino hobeak ote dira?

Goizeto 3tako mezetan bedekintzen dira opilak. Meza erdarazkoa herriko haur guztientzak, nahiz eta herriko haur gehienak euskaldunak izan, eta herriko eskolatan matrikulatzen diren haur gehienek ere euskarazko eskola eskatu.

ISIDRO INDO ALKORTA

Hogeita hiru urte zituen Isidro azkenengo gerrate hasi zenean. Soldaduzka egina zuen ordurako. Baina guda sortuaz batera, Euskal Herria arriskuan ikusi zenean, bere barren barreneko sua piztu zitzaion, eta Aberriarren alde bizitza jartzerak joan behar zuela pentsatu zuen.

Gudarikato argazkiak ditu mahai gainean. Gaztetako oroipenak, oroipen latzak eta gogorak. Hor daude argazkitan Hondarribiko gudari mordoxka, Gernikako Arbolapean, Intxortan, Lemoan, eta hainbat frentetan ateriak.

—Hau Guillermo Etxeberria da, hau Saseta kapitana, hori Martin Elgetan bizi dena, hauek ondarrutarrak, hori berriz Juxto Olasagasti, hau Fermin Lapitz, hau ere hondarribiar Txato deiten genioa, beste hori Antonio Elduaen..., denak hondarribiarrak...

Argazki bati begira gauda. Gudariaren atzean Saseta Batalloko kamioia ikusten da, bere letrero eta guzti.

—Ze batallotatik ibili zinen zu?

—Gu Batalloti Sasetaokak ginen, ametraladoreakokak. Hau ere hemengo duzue, Gabino Lekuona.

Nik orain esan izenak eta failatzen baldin badut, baten bat esan gabe, gaizki hartuko naute, konprenditzen? Batzuk hilak dira, baina bizi ere bizi dira asko. Hauek bi anai dire, hau Antonio Elduaen, hau bere anaia Rufino begi bakarra duena, hori Luixito Aseginolaza, hau Gabino Lekuona, beste hau Martin Saseta kapitana, eta hau bere anaia Joxe Migel gaztia, bere anaia Kandido komandantearekin beti ibiltzen zena anaiaren auidante, hau Arentzio Lekuona... Ni hemen. Orduko, ni tenientia nintzen.

—Gudari asko al zineten Hondarribitik?

—Ez, asko ez, hauek eta beste doze-nerdiren bat hola. Gu Sasetaokak ginen, gero beste batzuk Amaiurruak ziren. Hondarribiar gehienak batallotik hoieta ginen. Gero batzuk Itxarunkundian eta...

—Argazki honetan hogeita lau lagun zaudete.

—Bai, baina gehiago ere baginen hondarribiarrak. Hor ez da Angel Sagarazu, gero Julian Goikoetxea, Patrizio Kalitarrak ere falta da, Karlos Zubeldia, Jose Antonio Garaialde..., batzuk hilak, ikusten duzu... Horregatik ni esaten hasi eta failatuko banuke, hobe duk esatea gifañala kuadrilla bat hondarribiarrak, bestela familiokak hartuko zuten pena "ez duk askorik esan gure familiakua"... hobe duk ez izenik jarri.


—Nola eta zergatik joan zinen gudari?

—Ni Guadalupen serbiziua egina nintzen. Gero 36ko nire anaia serbiziuan zegoen Loiolan, de cuota, Akilino Garmen-

diarekin; han harrapatu zituen gerrak. Eta hortatik erori ziren prisionero Loiolan. Gero nazionalak sartu zirenian, denok egin gendun hanka Frantziara. Han ondo ginen gu, gainera gure ofiziuari lanian hasiak, barbero. Etxian danak negarrez utzita, bar-kuan sartu eta juan ginen Bilbora. Bada-kizu, odola berua genuen, eta oso sartuak giñen gainera, eta nik ez nuen nahi kobardet bat bezela gelditu han. Halaxe pasa giñen Bilbora.

—Zer egin zenuen Bilbon?

—Bilbotik juan giñen abian. Nere anaia orduko Batallon Sasetak in zegoen, konpañia San Marzial, hauek Mitxelena zuten kapitana, irundarra, eta gure komandantea Ordoki zen. Ni Sasetarengana juan nintzen, eta kuartela genuen Gernikan, Agustiniuen konbentuan. Antonio Elduaen ere hantxe zegoen.



—Gogoratzen al zera zein izan zen zure lehendabiziko egitekoa?

—Bai, lehendabizi Kalamuara juan nintzen nere anaia ikustera, eta handik frentera. Bost konpañia egiten genduen errelebu, ametraladorekin beti. Gu "BETI AURRERA" izeneko konpañia giñen. Guri errelebu egin zituztenean hasi ziren frentiak, eta Intxortan hil zen Guillermo Irigolien hondarribiarrak, hurrengo egunian. Lemoan lortu genuen guk berriz aurreratzia eta nik hartu nuen haien bandera espafiola.

—Zauritua edo izan al zinen frentian?

—Ni ez, baina nere anaia cinturon de hierro famatuan heritu zuten, bomba bat ametraladorean niduan sartu zen eta komandantea donostiara Roke Amunarriz egin zan hil, eta nere anaia grabemente heritua gelditu zen, eta Torrelavegara eramane zuten. Baina sendatu zen eta berriro ere heritu zuten gu Bilbo gaitzen ari giñela.

—Gernika bonbardeatu zutenean, zu non zinen?

—Ni hantxe bertan, eta bonbardeua ikusi nuen, zergatik esperientzia banuen herria zela txarren txarrentza, eta alba-zen mendira itzuri, eta bonbak hais zire-

nian burura etorri zitzaidan Gernikako Arbolak bertan da, eliza ere bai, eta palazio de Olazabal, eta handik den dena ikusten da goitik, eta halaxe ikusi nuen guztia. Nik baino hobeto ez zuen ikusi inork. Lehen-bizi etorri zen ariplanu bat, baina nola behin ere ez zuten bonba bat bota, eta gainera ez zen kuartelik (guria bakar bakarra zen, eta konpañia txikia gainera), ba... baina bonba haundi bat bota zuen Errenteria auzoan. Orduan plazatik alturara igo giñen, eta dena ikusi.

—Bonba asko bota al zuten?

—Bonba haundiak gutxi bota zuten, esateko moduan ale batzuek, baina botatzen zuten beti inzendiaria bonba txiki horrelakak, zillar kolorekua, eta hura erortzen zen momentuan su egiten zuen. Erre nahi zuten!

—Han hasi al zineten atzeraka?

—Bai, Gernikako hura gogorra izan zen, eta juan giñen atzeraka atzeraka Balmesdaraino. Gure konpañia ia txiki txikia zen, mojen konbentuko lokutorian kapitzen zen koltxoiak botata. Handik Santanderrera, eta Escudora... Han topatu giñen Konpañia Amaiurreko hondarribiarrak, Arentzio Lekuona, eta Rufino Elduaenekin eta. Han etorri ziren italiarrek tankiak eta guk ezin erretiradurik egin. Guk itzuri nahi genuen Frantziara eta motorra ere listo gendun kaian, baina piezaren bat kendu ziguten eta hantxe erori giñen...

—Hondarribian lola hartu zintuzten gerra galduta etorri zinetenean?

—Oso gaizki. Hemen abertzale gutxi zela, eta gorri zikiñak dielten ziguten. Eta nola begiratzen ziguten!

* * *

Isidro kontakten digun guztia ez litzateke liburu batean sartuko. Baina guk bukatu egin behar, zoritxarrez. Eskerrak ematen dizkiogu, eta berari bezala beste gudari guztiei ere bai. Eta bizi daitezela lur-aro gure herriko historiaren lekuko biziak direlako.

HITZA

Gizonak hitza da erabiltzen duen tresna garrantzitsuenak besteekin komunikatzeko. Hitza beraz tresna da baina, elkarriketaren funtsa denez, ez da tresna bakarrik izango. Zer da hitza? Hizkuntzariak, kodigo (hizkuntz) ezagun baten bidez gizonak ematen duen MEZUA dela esaten digute. Hitza, hortaz eta funtsean, mezua da.

Hitzak, berezkoa baldin bada, bi atal ditu, bata EKINTZA, bestea GOGOETA. Ekintza eta gogoeta guztiz elkarthurik daukete benetazko hitza esaten denean, eta jakin, hitz egiterakoan bietako bat kanpoan utzi ezker, besteak haren hutsunea paila

ratu beharko luke, Holako hitz oso, integratu eta gureganatuak esan daiteke, argi eta garbi, gure ingurua eraberritu egiten duela.

Hitz hutsalak ordea, benetazkoa ez denak, ez du inolako ondorenik munduan, ezin du inguruerik aldatu, ez eraberritu eta holakorik ematen duenean, ekintza edota gogoeta falta direnean, seinale izan ohi da. Zeren, hitzari ekintza kentzen badiogu, zer geratuko da hartaz berba merke eta jarioa baizik? Hitza ekintzarik gabe faltsukeria da eta ingurua eraberritu beharrean, usteldu egiten du. Holako hitza husteria besterik ez da izango, zeren konpro-

misoa falta baitzaio. Eta alderantziz, hitz egiterakoan ekintzari ematen baldin badiogu lehenetsuna gogoeta itzali eta ukatzeraino, zer bihurtuko da hitza aktibismo hutsa baizik? Ekintza reflexiorik gabe ez doa inora, ez du fruitu baikorrik ematen.

• • •

Azkenik, eta hanka egiteko tenorea heldu baita, gogoarazi nahi nuke mendeetan zehar hainbat eta hainbat gizon jakintzari eta zuhurkeri esan digutena, hau da, gizadi osoaren eskubidea dela benetazko hitzaren jabe izatea.

Guadalupe ARTOLA

OPIL EGUNA HONDARRIBIAN



Opil-Eguna, San Markos-etan, apirilak 25ean, ospatzen da.

Azkuere bere hitzegian dionez, lehen-dabizi artoarekin egindakoan deitzen zizaitzaio opila; eta gero gariarekin egindakoari ere bai; gaur gari finarekin egiten ditugu, mokoa asko findu zaigu-eta. Horretxegatik dira, eta ez besterik, gaurko opilak garestiak!

Bedeinkatua opil hauek daramatzaten arraultzak, bai, lehengo oilo beretatik datozenak ere; plastikozkoak jartzen ez dizkiguten arte.

Ohitura hau ez da Hondarribikoak bakarrik; San Markos-ogia Gipuzkoa osoan

ezagutzen da, eta "amabitiak Paskoz besotakoei ematen dion opil inmuturrekoa" bezala. Hirumuturrekoa borobildu zaigu Hondarribian bata bestetan, ikusten denez. Irunen ere ohitura bera aurkitzen dugu aspaldidanik, garesti eta guzti.

Irunen, Hondarribian bezala, mendisorak bedeinkatzeko usadioak hasi zen. Bide luzeak egiten zituzten prozezioz, nonbait, eta erromesak jan-edanak eramaten hasi ziren, bideko atsedendaldirio baten fardeltxoak astintzeko asmotan. Denboraz, jateko eramaten zen ogia ere bedeinkatzen hasi zen apaiza, sorotako gariak eta artoak bezalaxe. Ogia, opildu egin zen gero, eta geroxeago arraultza egosiekin hobea zela, legorria baino, eta biak ezkonduaz gero arraultza hauek gorritzen ere hasi ziren, polita egiten zuelako-edo, eta dena, zapi zuri ederretan bildua eraman ohi zen opariaren bedeinkapena errespeto handiz egiteko asmoz. Baina Irungo Udaltxeak opila bustitzeko sagi bat ardo jartzea erabaki zuen 1804an. Beti aurrera! Baina aurrerregi joatea ez ote ez, gero, prozesioan ardoz betetako sagi bat sartzea, anda eta guzti?

Junkaleko apaizentzat, prozesioaren formaltasuna haustea zen, eta ardo jartzen zuen Udala eta Saindura jartzen zuen kleroa haserretu ziren; apaizek, huelga; baina eskrupulu gutxiago zuen kaputxino bat aurkitu zuten, eta bedeinkapena istilurik gabe egin zen. Gauzak honela, hurrengo urtean gauzak bere lekura etorri eta Parrokiako kleroa eta herriko Udala konpondu ziren berriz.

Hala ere, laster, prozesio luze eta isti-

lugarri haiek utzi eta bedeinkapena Elizaurreko plazatik mugitu gabe egiten hasi ziren.

Orain telebisioz egiten diren modura.

Hondarribian, Lonjan zegoen San Markos-en gurutzan egiten zen; gero "Ainara"ko jardinean iskina egiten duen zati polit batean egin zioten leku berezia gurutzari, eta geroztik hurbil dagoen elizatik letaniak abesten jaitsi eta gero, debozio handiz egiten zen bedeinkapena. Baina, hara nola hasi garen gauzak errazten: haraino joaten denak, meritua du San Markos-en aurrean, baina norberak bere etxeko leihoan edo balkoian goizeko bederratzia puntu fardeltxoak jartzen badu, balio bera du.

Berandu jeiki zitzaidan alabatxoak esana dut hau.

Honek gauza bat erakusten dit niri; ohitura polit hauek errazkeriaz goitik behara datozela, eta gaur ez dutela sorrerako eragin hura; osorik ahaztu ere egin gara nola eta zergatik hain errazki bedeinkatzen ditugun gaur opilak; eta komeni da, noizean behin, paperezko kukurutzotan ematen dizkiguten patatatxo mehe preji-tuak, baratzen ongi atxurtutako lurrean otsaila-martxoan erin, landarea zomorroangandik zaindu eta uztailan atxurrez atartzen den igali bat dela, lanaren fruitu bat dela gogaraztea.

Hasiak baigara galirina nondik datorren galdezka!

Martin Ugalde

ARROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

TXUNTUXUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

KULTURA

MENDIRA

Ikastolako mendizale taldeak bere zortzigarren iteera egingo du Maiatzaren 17an. Oraingo honetan "martxa regulada" izango da, mendigoizale gaztetxo hauek egingo dutena.

Datorren hilean, Ekainaren 14an **AT-XURIAra (756 m.)** egingo duten igoerarekin emango diote amaia aurtenko ikastaroan eraturtako bederatzi igoerei.

HAINBESTERAKO BAZEN !!!

Aipatzen genuen bezala, fondoko eski egitera joan behar zuten Ikastolako 8. mailako gela batekoek eta beraien kezka ea elurrik aurkituko zutela zen. Argazkian ikusten dezuten bezala elurra bazen eta eguraldia ere lagun izan zuten. Beraz, primeran pasa zuten.

ESKOLARTEKO JAIALDIA

Maiatzak 17an Eskolen arteko jaialdia ospatuko da. Jaialdi honetako antolatzaileen asmoa, ikasleek eskoletan egiten dituzten zenbait ekintza kaleratzea da.

Igande goizean, 10ak aldera hasiko dira ekintzak. Ordu horretan tailerrak antolatuko dira, berton 3tik 7 urteko bitarteko haurrak parte har dezaten. Buztina, margoketak,... antolatuko dira.

Hamaikak aldera eta jaialdiari jarraiera emanez dantzak, txontxongiloak, bertsoak, abesbatzak, eta abar ikus entzuteko aukera izango da.

Goiz goizetik, herria girotzeko eta kaleak laitzeko fanfarre bat arituko da.

Hau dena borobiltzeko "Haizehots" taldearen laguntza izango dugu, jaia beraien eskutik agertuko bait zaigu.

Bainan dudarik gabe, Haurrak izango dira Maiatzak 17 honetako protagonistak!

ORDULARI ORDU GABEA

Kaletik noa' toki guztiak miatzen eta begiratzeko, kale hau berria bait da neretzako. Euri gotik behera ari du, eta kotxeak abiadura osoz pasatzen dira bide ertzetik jendea urez xipristinduz.

Nire zapatak blai eginda daude, eta nire aurrepigitik euri tantak erortzen dira.



Antxunborda

Denda bateko ispilu aurretik igarotzean, gauza bat ikusi dut ispiluko txoko batean botata; pixkanaka-pixkanaka hurbildu naiz, eta berari begira ari naiz mugitu gabe denboraldi batez. Ordulari zahar eta txiki bat da.

Nahiz eta dirurik ez izan, dendara sartu naiz. Denda txiki, ilun eta zahar bat da. Salmahaiaren aurrean ezta inor ikusten. Bat-batean, beltzez jantziriko atso zahar bat irten da eskuetan katutxo bat duela,

eta abots finez itaundu egiten dit: — Zer nahi duzu haurtxoa? — Zenbat balio du zure dagoen erreloju zaharronek?

Atso zaharra, farrez algaraka hasten da.

— Ordulari hori ez dago salgai, aspaldian hondatuta dago; ordulari ordu gabea da. — Baina niri atsegin zait!!! Oihukatzen dut.

— Ez du ajolarik, ez dago salgai. Ulertu al duzu?

Burumakur abiatzen naiz aterantz, bainan, ateko marailetik heltzerakoan abots fina berrito entzuten dut: — Barlati mutil; gogorra izan naiz zurekin, har ezazu.

Txundituta gelditu naiz, eta pixkanaka-pixkanaka irribartxo bat ikusten da nire aurrepegian.

Pozez beteta nire eskuetan hartu dut, eta eskerrak eman ondoren dendatik saltoka eta irribartsu atera naiz.

Sinestezina da. Etxe baten azpian geratu naiz eta ordularia begira hasi naiz:

Bertan 1.801. urtea ikusten zen zenbakirik handiz. Baina... ezinezkoa zen 1.801. urtekoa izatea!

Bat batean, lurrera erori eta... tik-tak! tik-tak! hasten da, nahiz eta orratzik ez izan.

Sinestezina benetan; urte askotan geldi egona eta orain bat-batean bakarrik ibiltzea!!!

Ni atsegina iruditu banintzaio bezala da!!

Bai erreloju majoal Zein jatorral!

Inoiz ez zait halakorik gertatu ezer eta inorrek:

Bakarrik ikusita polita iruditu zait.

— Eta orain zein izena jarriko diot?

Bat-batean "mueie" bat ateratzen zait atzeko aldetik Mmmhhuiukkh!!!

— Ah! Miunk izango da hemendikan aurrera zure izena.

Txirrina jotzen du atsegina irudituko balitzaio bezala.

Bai pozgarria!!!! Txundigarria!!!!

Beti lagunik gabe eta triste bizi, eta orain halako laguna topatu. Sinestezina!

POZIK NAGO!!!

Hondarribiko Ikastola
Ainhara Obeso 8°.

GAINEAN DAGO!

Aste Santuko oporrak pasa ondoren, kurtsoa ea bukatutaz eman dezakegu. Maiatza aurrera doa eta Ekainean globalak, irteerak eta kanpaldiak direla eta, bukaera iritsiko zaigu konturatu gabe.

Gogor ekin behar diogu lanari gelditzen zaizkigun egunetan, udaran lasai pasatu nahi badugu.

Loli

ARGAZKI RALLYA

—Maiatzaren 17an, igandez, V BAZTAN-BIDASOA NAZIOARTEKO ARGAZKI RALLYA ospatuko da.

Aurreko urtetan bezala, ekintza artistiko hau "Bidasoa Izokin Kofradiak" antolatzen du, Irungo Udala eta Irungo Fotografia Elkartearen laguntzarekin.

Rally hau argazkizale guztiri zabaldua dago, eta azken fasea Hondarribian ospatuko da Maiatzaren 17an, esan bezala.

Hondarribiko fotozaleek, beraz, oso erraza dute parte hartzea, zeren inora joan beharrik gabe, hemen herrian bertan erakutsi ahal izango dute beuren trebetasun artistikoa. Ea nork irabazten duen.

ESKIFAIA

Aurtengoarekin hirugarrena izango da abeslariak ospatuko duten TTOPARA. Zarautz hirian eraikuntzaren 750 urte betetzen direla eta, bertan egingo da III TTOPARA Maiatzaren 10ean. Jai ederra izango delakoan gaude.

Maiatzaren 16an, Eskifaia Logroñoako Arnedo herrira doa kantatzera.

Egun berean, Hondarribira Bizkaiko laur HUR ABESBATZA etorriko dira, Portuko elizan kontzertua eskaintzera. Kontzertu hau eguerdiko orduetatik izango da. (Gure aldetik hau esango genieke antolatzaleei: larunbat batean eguerdiko orduetatik jartzen den kontzertua frakasora deitua dagoela aurrez, eta hobe litzatekeela "entsaio" bat egitera datozela esatea.)

Eskifaia Txikia ere Arabako Arriaian emango duen kontzertua geratzen ari da ilusio haundienarekin. Maiatzaren 14an joango dira herri polit hartara.

Maribi

UDAL LIBURUTEGITIK

Udal Liburutegia poliki poliki osatzen doan bezala, azkenaldian jasotako euskal liburuen zerrenda aurkeztuko dugu, hone-larri dagoen berri izan dezazuen.

Hona hemen apirillean jasotakoak zerrenda:

Helduentzat:

ALARCON, Pedro Antonio de "Heriotzaren laguna".
ALLEN, Woody "Jozak berrito, Sam".
ARBELBIDE, Xipri "Gerlako tresna biziduna".
ARRIETA, Joxe Austin "Mamu militar".
BAROJA, Pio "Ihaurietako eroeriak".
BOLL, Heinrich "Pailazoa baten aburuak".
GARATE, Gotzon "Goizuetako ezkon-gaiak".

IRIGARAY, Jose Angel "Gauerdiko ele galduek".
PUJANA, Basilio "egi batzuk aietarazten".
RULFO, Juan "Lautada sutan".
SARRIONANDI, Joseba "Atabala eta euria".
WILDE, Oscar "Dorian Grayren erretratu".
ZAPIRAIN, Salvador "Odol-Kutsa".
ZULAIKA, Joseba "Bertsolarien jokoa eta jolasa".
"Larruzko botaren ikerketa" (Txinatar anonimoa).

Umeentzat:

BALLAZ, ZABALZA, J. "Etxe bat nora-zean".
CROCE, Giulio Cesare "Bertoldo eta Bertoldino".
GOSCINNY, René "Nikolas txiki eta bere lagunak".
HIDALGO, Bittor "Oeren bila".
LONDON, Jack "Letagin zuri".
McCAY, Winsor "Nemo Txikia".
TEHANETORENS "Ipuin Iroquiarrek".

Bestalde, ipurilari dagozkion zenbait datu interesgarri jartzen dugu hemen, guztiontzat jakinagarri direlako:



—Liburu erabilak 1.220 izan dira
—Lan orokorrak 72 izan dira
—Umeentzako liburuak 823 izan dira
—Zientziakoak 224 izan dira
—Literaturakoak 101 izan dira

Guzti hauetatik euskarazkoak %14.

Irakurlegia begira, berriz, hauek dira liburutegira etorri direnak:

—Irakurleak denetara 1.076
—Gizonezkoak 658
—Emakumezkoak 418
—Umeak 862
—Helduak 214

Kote Gebara

HERRIKO MUSIKA ESKOLA

1987-88 ikastarorako matrikula maiatzaren 4tik 15era irekiko da. Irakas-tzen diren gaiak hauek dira: tronpetak, klarineta, txistua, ta solfeoa.


Ikasketak doan (debalde) izaten dira, Udalarena delako Eskola hau.

"BORDARI" eta "SATARKA" LEHIAKETA

Laugarren aldir deitzen du Udalak olerki eta ipuin lehiaketa. Beti bezala, 18 urtetan jartzen da idazleen muga, goitikoentzat maila bat, eta behitikoentzat bestea ezarrit.

Euskaraz beharko dira egin lanak, gai librean, beste inon eta inoiz sarituak izan ez direnak. Irailaren 15erako aurkeztuko dira lanak. Eta baldintza guztiak jakin nahi duenak, Udaletxean galde beza.

Maritere



ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

Antxua

Apirilaren 8an, ia ia esango genuen antxuaren kostera hasia zela, ba 80.000 kilo sartu ziren gure lonjan, eta itxura guztia zekarren kostararen erregulartasunari buruz.

Salneurriak nahiko nahastuak izan ziren, 335 peza eginez, bataz beste, kilok.

Baina aste hartan apenas hatzeman zen gehiago.

Gero, **15an**, 30.500 kilo sartu ziren, eta **16an**, beste 36.000 kilo. Antxuaren tamainuari begira, ederra eta haundia izan zela esan behar, eta gehienbat kontserbetarako saldu zen.

Apirilaren 21 izan da antxua gehien ekarri den eguna: 130.000 kilo, baina tamainu txikiakoa, eta nahastua, 47tik 67ra kiloko. Baita jetsi ere salneurria kolpetik **80 pezetaraino**. Gainera oso urrutu aurkitzen zen antxua, 14 orduko bidetan. Horrenbeste ibili, horrenbeste lan egin, kaiara ekarri, eta prezio horretan saltzea merzei al du? Egia da arrain haundia baino errazago hondatzen dela, baina hala ere...

Horrelako bide luzeak eta salneurri merkeak utzi, arrantzaleak hemen inguruko uretan ibili ziren, eta antxua haundia hatzematea lortu zuten, 28/32 alekoa, prezioak ere gora eginez, 305/503 pezeta egiteraino kilok.

Apirilaren 22an 34.000 kilo sartu ziren, eta **24an** 13.500 kg.

Hendaiaiko barkuak

Hendaiaiko ontziak eta Donibaneakoak ere antxuatzen dabilta, baina sare pelagikoarekin. Hauek ere tamainu berdineko arraina hatzematen dute, hau da, antxua haundia, baina merkeago saltzen dute euren kaltetan, ia 200 pezeta merkeago.

Bestaldeko ontzien sistema horregatik ez balitz, nik uste dut **zerkoko sareekin** gabilzanok (Hondarribia, Orío, Getaria, Mutriku, Bermio, etabar), askoz ere gehiago hatzemango genukeela.

Apirilaren 29an, arrantza eskaxa izan da, 15.000 kg. bakarrik, 430, 450, eta 490 pezeta ordainduak kilok.

Berdela eta gosea

Azkenetan dabilela ematen du berdelaren arrantza. Apirilaren asko ekarri dute Hondarribiko ontziek, aspaldiko marka guztiak hautsiz.

Kofradiako liburutetan ikusten dugunez, **1.977a** izan zen berdel gehiena hatzeman zen urtea, **1.200.000 kilorekin**.

Hori zen aurtur arteko markarik onena, baina aurtengo udaberriaren bikoiztu egin da kopuru hura, **2.400.000 kiloko rekorra** ipiniz. Egia da berdel asko ikusi dela, baina baita inoiz baino kostera luzeago egin dela.

Baina betiko kanta egingo dugu: **lurre-raino erortzen direla prezioak, eta ezin dugula saldu berdela**. Munduan gosea da goela eta halako gauzak entzuten ditugunean, eta jendea lanik gabe bizi dela, eta dirurik gabe, eta halako zenbait gauza, gezurra dirudi guk arraina merke saldu eta hala ere inork ez nahi izatea. Nola ulertzen da hori?

Legatza

Berdela urritzen hasi denean, dozenaren bat barku legatzetan hasi dira. Ez dute arrantza onik egin oraindik. Prezioak ere ez dira punta puntakoak. Baina hau urteorot gertatzen da sasoe honetan, ba jendeak nahiago du antxua erosi, zerbait merkeago delako. **Zerbait merkeagoa antxua**, ba aurtengo udaberriaren **peskadilla 530 pezetan** saltzen ibili gara, eta antxuak berak ere egin du 500 pezeta.

* * *

Horrela bukatzen du apirilako arrantzari buruz idatzi nahi nuen. Maiatza hobe izan dadila antxua eta legatzetan. Eta eguraldi ona izan dezagula.

Andres

ORAIN 100 URTE, BARRAN ITO

Liburu zaharrei begiratuz genbiltzala, hara zer topatu dugun Hondarribiko barran gertatu zen istripu bati buruz.

1877ko maiatzaren 14 zen, justu justu orain dela 100 urte, beraz. Arratsaldeko lau t'eriak ziren. Hamabost arrainari datoz: **DONOSTIARRA** trinkaduran, **ber zerbizioa** egin eta **etxera**. Trinkadura itsasontzi txiki bat zen, beti **TAJO kañonueraren aurretik ibiltzen zena**. **TAJOko komandantea** Don Baldomero Vega de Seoane, Hondarribiko komandantzia bizi zen.

Egun gogoangarri hartan, **DONOSTIARRA** Bidasoako barra iragotzen ari zenean, ustegabeko haize gogorra eta nahasia sortu zen, olatu izugarriak eginez. Minutu pare bat lehenago etorri izan bazen, lasai iragoko zuten, baina orain... a zer larrial, a zer izual, gora eta behera dabil gure ontzia, eta berehala, istanpatean, olatu tartean aurkitzen dira 15 arraunlari honda-ribiriarrak!

Zer egin?

Bazen bari ondoan, barra irago berria, Hondarribiko beste txakupa bat, **SALBATZALEA** izenekoak.

Txalupa honetan lau gizon eta 14 urteko mutil bat aurkitzen ziren, eta trinkadurari zer gertatzen zitzaion ohariturik, arrisku bizian sarturik, han doaz olatu tartera, eta horrela hamairu gizon ateratzen dituzte bizirik. Beste biak, ordea, hantxe galdu ziren.


SALBATZALEA txalupako bost salbatzaileak hauek izan ziren: **Pedro Oronoz** patroia; **Trifon Lekuona**, patroiaaren kufiade; **Pedro Oronoz**, patroiaaren semea, 14 urtekoa; eta **Faustino** eta **Ascencio Oronoz**, patroiaaren anaia. Kasi familia bateko umeak guztiak.

Galdutakoak, berriz, **Tomas Martinez**, **Josefa Zubialde Mirandaren** senarra; eta **Antonio Lekuona**, **Anbrosia Ugartemendiaren** senarra.

Alargun gaixoak ezer gabe geratu ziren, Diputazioari diru laguntza eskatu zitzaion, baina ez zen hain erraza laguntza lortzea.

Hala ere, 1887ko uztailaren 9an, Diputazioak **250 pezeta** bi alarguren artean partitzeko jaso zituen herriko alkateak. Eta geroago, 8 urtetik azpiko ume bakoitzentzat 7,50 pta. hilekotz; eta alargunentzat 240 pta. urtekotz.

Bost salbatzaileek ere jaso zituzten eskerronaren agiriak. "**Sociedad española de salvamento de naufragos**"ek hogeita bostna pezeta, eta patroia eta kufiadearentzako: zillarrezko medalla bana, eta brontzezkoak beste hirurentzat. Agiri hauen eskaintza jai haundi batetan egin zen Udaletxean, herriko alkate, bikario,



Abad Nagusi, patroir, txistulari, eta jende askoren aurrean.

Ehun urte irago dira harrez gero. Bai galdutako bai salbatutako, eta baita salbatzaileen ondorengoak hemen bizi dira, haiek bezalaxe itsasoarekin burrukan.

Salbatzaileen aztarrenak

Txalupan zetozen bost lagunen ondorengoak zein ote diren jakiteko kuriosidadea izan du aldizkari honetako laguntzaile batek, eta hara zer atera duen.

—Pedro Oronoz Etxenagusia, patroira, 1834an jaioa zen, Pilar Pikabea Arbelai-ekin ezkondua.

Hauen seme alabak izan ziren: Federico, 1861an jaioa; Paskasia, 1864an; Eujenia, 1865an jaio eta Domingo Albistur Etxebesterekin ezkondua, Juana eta Pablo seme alabak edukiz; Prudenzia 1867an jaioa, Pantaleon Iridoi Aseginola-ekin ezkondua, Joakin-Julia-Teodora-Enrike-eta Patrozinio seme alabak edukiz; Pedro, txalupan zihon hamarua urteko mutila, osaba Trifonen etxean bizi zena.

—Faustino Oronoz Etxenagusia, patroira enaia, 1847an jaioa, Teresa Elzo Aseginolazarekin ezkondua.

Seme alabak: Ines (1882); Timoteo (1885), Felisa Iridoi Goikoetxarekin ezkondua.

Trifon Lekuona Ugartemendia (1855), Jose Mari Lekuona Olasagasti eta Josefa Antonia Ugartemendia Elizondoren semea.

Trifon hau Kasimira Oronoz Etxenagu- siarekin ezkondu zen, Elisa (1878); Mel- chora (1882); Natividad (1884), Jazinto Martinez Virtorekin ezkondua; Domingo (1888), Agustina Lazkanotegirekin ezkon- dua; Ziriaka (1891); eta Berta (1893).

Itoen aztarrenak

—Antonio Lekuona Olasagasti (1821), Ambrosia Ugartemendia Elizondorekin ez- kondua, Antonio hau Trifon Lekuona sal- batzailearen osaba.

Antonio eta Ambrosiaren seme al- abak: Jose Mari (1856); Susana (1858); Tri- burzio (1858); Rufino (1860); Dorotea

(1862); Magdalena (1865); eta Meliton (1863).

Meliton hau Paulina Zuzai Elduaien- kin (1856) ezkondu zen, eta seme alaba hauek izan zituzten: Gumersindo (1883), Dorotea (1888), Restituta (1893), eta Juan (1897).

Tomas Martinez Irazu (1838), lehe- nengo Leona Sagarazu Sagarazurekin (1839) ezkondu zen, alaba haek izanaz: Maurizia (1860) eta Juliana (1865).

Bigarren aldiz Josefa Zubialde Miran- darekin (1845) ezkondu zen, seme alaba hauek edukiz: Robustiana (1871), Julia- na (1873), Ricardo (1877), Zirilo (1880), eta Juan (1883).

Hutsuneak

Segurutzat datu hauek ez dira bete beteak izango, eta hutsunen batzu nabarituko di- ra. Barka bezaigute bai batzuren eta bai besteren ondorengoak. Bizitzak aurrera ja- rraitzen duela aipatzea nahi genuen, eta orain ehun urte gertatua ez dela hain urruti geratu. Ojala itsasoak ez digun zoritzarrik ekartzen aurrerantzean!

Karmele

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

JAIOTZAK

APIRILAK

- 5: AITOR Perez Garzia
Fco. Manuel eta M^a Gemaren semea.
Uria Harresia, 3.
- 7: ANDER Perez Antxustegi-Etxarte
Fco. Jose eta Miren Igoneren semea.
Barealde - Pasaia kalea.
- 8: AMAIA ADRIANA Gezala Ortiz
Fco. Javier eta Miren Sorkunderen alaba
Bidasoa kalea, 1.
- 9: ELENA Intxausti Iñiñiz
Jose Angel eta M^a Elenaren alaba.
Loraitz-bat, 4.
- 15: UNAI Manterola Yagüe
Luis M^a eta Josefinaren semea.
Almirante Alonso, 5.

- 18: ENDIKA Jauregi ETXEGARAI
Luis M^a eta Mariaren semea.
Santa Engrazia auzoa.

- 25: ASIER Martiarena Etxegarai
Jose Antonio eta M^a Pilarren semea.
Jesus Mari etxea - Amute auzoa.

- 25: EDURNE Elizgarai Luis
Marcos eta Lourdesen alaba.
Damarri, 2.

EZKONTZAK

APIRILAK

- 11: ANGEL Rodriguez Santiago
21 urtekoa - Irunen bizi dena.
M^a MAR Salaberria Mullor
21 urtekoa - Hondarribiarra.
- 16: FRANCISCO JAVIER Bergara Alejos
24 urtekoa - Irunen bizi dena.
M^a ANTONIA Miranda Loinaz
28 urtekoa - Hondarribiarra.

HERIOTZAK

APIRILAK

- 10: ISABEL Paduleaga Iriazabal
57 urtekoa - Hondarribiarra.
San Nikolas, 14.
- 10: EUJENIO Olaskoaga Zuzaya
Hondarribiarra - 63 urtekoa.
Kale Nagusi.
- 21: NICOMEDES Berroteran Zubillaga
65 urtekoa - Hondarribiarra
Arrantza Auzoa, 27.
- 26: CECILIA Fernandez Diez
90 urtekoa
Betherramita
- 27: JOSE Aristizabal Pikabea
84 urtekoa - Lesakan jaioa
Gibeleta, 12-A.

MAIATZAK

- 2: FRANCISCA Chasco Gomez
88 urtekoa
Damarri, 5
- 2: LUIS Iriazabal Oronoz
69 urtekoa - Hondarribiarra
Bidasoa kalea, 16.



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

KIROLETAKO UDAL KONTSEILUAREN 1987ko AURREKONTUAK

Eskoletako kirolak

Atletismo	323.400
Eskubaloia	198.300
Saskibaloia	603.200
Saskibaloia	9.500
Futbola	112.160
Futbola	22.500
Pilota	216.000
Ajedreza	10.500
Txirrindulariak	100.000
Soinketa	319.800
Medailak	268.400
Guztira	2.183.760
Sarrerak	360.000

Promozioko kirolak

Eskubaloia	352.000
Pilota	306.720
Futbola	955.245
Arrauna	1.768.000
Atletismo	150.000
Basket	484.200
Klink	70.000
Niño Jesus Ikast.	154.000
Txanpa	628.780
Guztira	4.917.945
Sarrerak	265.000

Konpetizioko kirola

Pilota	76.680
Kirol Taldea	219.520
B.A.T.	150.000
Basket Elkartea	38.000
Eskubaloia	1.019.480
Izurde	125.000
Airin Taldea	75.000
Txirrindulari Elkartea	125.000
Futbol Elkartea	1.718.600
Guztira	3.353.540
Sarrerak	1.194.390

Beste ekintza batzu

Garaikurrak	230.000
Futbol Zelaia	450.000
Udako ekintzak	2.000.000
Ustegabekoak	500.000
Guztira	3.180.000

Aurrekontu Orokorra

Eskolako Kirolak	1.823.760
Promozioko Kirolak	4.657.945
Konpetizioko kirolak	2.159.150
Beste ekintzak	3.180.000
Guztira	11.820.855

Hauxe da kiroleko kontseiluak Udalari aurkeztu dion aurrekontua. Ikusi egin behar gozaki datorren erantzuna.

SASKIBALOIA HONDARRIBIAN: H.B.E.

Hona hemen gure herrian jokatzen den beste kirol mota bat, eta, beste kirol batzuk bezala, hau ere hortxe laguntza handirik gabe mantentzen dena. Eskerrak betikoei, afizio gozori, sakrifizio ugari eginez LAU EKIPO DITU HONDARRIBIA BASKET ELKARTEAK.

Bigarren Dibisio Femeninoan mantentzea lortu du, eta hori ekipo gazte gazte batekin, zeren jokalaririk gehienak **JUBENILAK** dira. Aurtengo esperientziagatik, seguru datorren urtean, 2n, Mailako ekipo puntakoa izango dugula **HONDARRIBIA**.

Junior taldea, bere aldetik, hirugarren geratu da bigarren urtez errezkadari, eta hori esito ikaragarria da gazte hautentzat, lehenengoa eta bigarrena **JUVEN** eta **DONSOTI** direla jakinda.

Jubenil eta Kadetetan, probintziako txapelketan parte hartzeko klasifikatu dira.

FUTBOLEKO KOPAKO FINALA

Su-ta-gar jokatzen ari den Kopak, Maiatzaren 24an izango du finaleko partidua. Eta gero trofeo banaketa San Pedro kalean.

ATLETISMOA

Maiatzaren 30an jokatuko da Atletismoko finala alebin eta infantil mailan.

Hurrengo egunean, maiatzaren 31an, Eskolarteko Txapelketaren Azkenak jokatuko dira, kirol guztietan.

Kontu egin behar da Atletismoko Eskolarteko Txapelketa honetan gutxienez **MILA HAURREK HARTU DUTELA PARTE**.

Proba guztiak bukatzen diren bezain laister banatuko dira medaila eta trofeoak.

BERRI BITXIAK

Zortzigarren aldiz jarri dituzte andamiak Sorroetako pilotalekuan denbora gutxian. Oraingo honetan, sare puska bat jartzeko izan da. Baina behin betikotz ez direlako gauzak ongi egiten, berriro ere andamiak beharko dira jarri. Pilotaleku eta futbol-zelai ingurua txukuntzea falta da oraindik.

Kiroletako Udal kontseiluak 24 orduko epea eman zion lehengoan Udalarik, hondartzak atletismoko pista kate batekin itxi zezan. Izan ere, urteoro negu partean erabiltzen dira pista horiek, eta txapelketak bukatzen direnean kotxe pilla sartzen da pista gaineratun aparkatzeko. Udalarik esan eta esan egin arren, ez zion kasurik egiten kontseiluari, eta azkenean 24 orduko epea eman zioten. Gauzak esutu diren bezain azkar, katea jarri da, kotxezik ez dadin sar.

29° HONDARTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

Azken Sailkapena

	J	I	E	G	Puntuak
1° Kai - Alde - Xaia	19	14	4	1	32
2° Sociedad Euzkaldarrak	19	13	5	1	31
3° Madalensoro	19	13	4	2	30
4° Sociedad Ondarra	19	12	4	3	28
5° Sociedad Niessen	19	12	4	3	28
6° Bar Ondarribi	19	12	2	5	26
7° Bar Larra -A-	19	9	5	5	23
8° Bar Ignacio	19	8	7	4	23
9° Unialco	19	10	2	7	22
10° Puertas Iraola	19	10	1	8	21
11° Bar Mateo	19	9	3	5	21
12° Opel Yarra	19	8	3	8	19
13° Bar Larra -B-	19	6	5	8	17
14° Bar Ondartxo	19	7	3	9	17
15° Bar Maite	19	5	3	11	13
16° Sociedad Goxoki	19	3	5	11	11
17° Sociedad Fortuna	19	4	1	14	9
18° Pub Trebeska	19	2	2	15	6



HONDARRIBIA-NORICA, Gipuzkoako Txapelkun Eskubaloi Kadetetan.
Entrenatzailea: Juan Jose Garzia Lekuna (TXITXOI)



DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu.

Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena:
AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALEKO KUTXA TXARTELA.

Estatuko 2.500 kutxazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua zabaldu besterik ez bait duzu

egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hon

darribiko guzti hauetan dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA

Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELAekin. ■

RESTAURANTE ARARKA

Bazterlar 5/bisita

RESTAURANTE AINHOA

Beltar Errepublik 9

HOSTAL ALVAREZ QUINTERO

Beltar Errepublik-5/bisita Minorar

RESTAURANTE AQUARIUM

72 Zabalgo, 5/b

SUPERMERCADO SORDA

Centro Comercial Solaia

MUERES ALUNDA

Centro Comercial Solaia

ELECTROMUEBLES GEURIA

Placentarria, 19

SESKA

Goñi, Larrin, 4/bajo

ELECTRICIDAD KALA

Javier Ugarte

CALZADOS IKUSI

Javier Ugarte, 7/bajo

EDERKI

Javier Ugarte, 8

RESTAURANTE ARRAUNLARI

P. Buzia (Ezpa Alai)

MUERES MARTINEZ ORTIZ

P. Fara, 12

KUTXA

P. Fara, 3

BOUTIQUE ROS

Pizar, 21

RESTAURANTE JAIZUBIA

Pedraza Vasco de Urdinola

RESTAURANTE BERO ERROTA

D. Jaurizola

HOTEL JAUREGUI

San Pedro

TXALUPA

San Pedro, 41/bajo

OROTZ

San Pedro, 6

ITXAS LORE

San Pedro, 62

OPTICA JAVIER

San Pedro, 12

RESTAURANTE ARKANTZALE TXOKO

San Pedro, 22

RESTAURANTE ZERIA

San Pedro, 22

RESTAURANTE ITXASPE

San Pedro, 32

MAREKOL

San Pedro, 67

ELECTROMUEBLES GEURIA

San Pedro, 8

ASADOR MASOLI

Santiago, 41/bajo

RESTAURANTE OSTARTE

Santiago, 73

JUAN ALCAIN JAUREGUI, S.A.

Zabalgo

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD

Zabalgo, 5/b

GAZTELU SPORT

Zabalgo, 14

ASADOR KUPELA

Zabalgo, 4

GAXEN

Zabalgo-Casa Martincho-Ezpa

FOYTERIA GARINS

Zabalgo, 14

KEGALOS NORAY

Zabalgo, 16

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

• Herrian gauza asko nola egiten diren jakin nahi duenari, pista bat emango diegu:

- a) Nahi baduzu, kotxez joan daiteke.
- b) Irungo edo Donostiako autobusa hartuta ere bai.
- c) Oinez ere bai, ez dago urritu eta.
- d) Hartzen da Irungo bidea, Amutetik igarotzeko, eta berehala ezkerretara begiratu. Han dago **MUEBLES BLOK**. Bi pabelloi dituzte, eta bien artean duen bidea tejabanaz edo teilatuz estalia ikusiko duzu.

Ongi dago lantegiak babestea eta indartzea, batez ere orain bezalako langabezia dagoenean, baina ezin dena da Udalaren aginduek baztertu eta norberak nahi duena egin.

1987ko apirilaren 21an Udaleko Hirigintza Batzordeak ez zuen onartu hartu BLOK-en eskabidea, eta ez zion ematen halako teilatutik egiteko baimenik.

- Eusko Alkartasuna: Alfonso Oronoz.
- Herri Batasuna: Esteban Olaizola.
- Eusko Alderdi Jeltzalea: Prudencio Lekuona.
- Euskadiko Ezkerra: Jose Luis Barcaiztegi.
- Partido Socialista Obrero Español: Jose Ramon Laborda.

• Legizarreko eskola inoiz eskola izatera iristeko kategoriarik izan ez zuen eskola, halako batean Montaña (hobeto esanda "Kornus") auzoko baseritarren Alkartasuna soziedadea bihurtu zen.

Orain, gauzak ondo jartzeko, Udalak erosi egingo du lur hura.

Bere garaian lur hori espropiatu egin zitzaion jabeari, Mercedes Labordari, baina eskola inoiz izan ez denez, orain Udalak erosi egingo lurra 364.350 pezetan.



Argazkian ikusiko duzu zer kasu egiten diren Udalaren esanari.

Gure galdera sinplea da: Lantegi horren aurretik iragoten dira egunoro alkatetza, zinegotziak, herriko arkitektoa... ez al dute ezer ikusten? Gainera jakinean egonik udaltzainek aspaldi salatu zutela egiten ari zirela teilatua?

• Udalaren konposaketa laister aldatuko den esperantzaz daude alderdi politiko guztiak.

Itxura guztiak direnez, datozen **HAUTSUNE MUNITZIALETA** botean banaketa berria gertatuko da Hondarririban. Orain arte P.N.V.k eramatean baztuen bote erdiak baino gehiago, badirudi gehieneko hori hautsia dela alderdiaren puskaketaz, eta gauzak beste modu batera izango direla hemendik aurrera.

Hona hemen datorren hileko 10ean aurkeztuko diren alderdi politikoak, eta zerrenda buruak.

• Irun eta Hondarririba arteko **UREN AMANKOMUNITATEA** izenpetzera doa bi herrietako Udalak. Estatutoak eginak daude, Amankomunitate edo Mancomunidad honen aurrean iritzi ezberdinak jaso dira, aldekoak eta kontrakoak.

Esate baterako, zortzigarren artikuloko dio Amankomunitatearen Batzar Nagusia hamaika zinegotzi osatuko dutela: 7 Irungoak, eta 4 Hondarriribikoak.

Paretasun eza hor dago! Nork aginduko du komunitate horretan? Hondarriribak ala Irunek? Nola gertatuko da gure herria?

Gainera, Hondarriribak Jaizkibelgo urak ekarrita nahikoa baldin badu, San Antongo urekin zer egingo dugu? Hor dago koka, eta denborak esango du.

Iaz bezala, aurtengo uztailaren 10ean Udaleku Irekia antolatuko da Hondarririban. Udaleku honetan haurrak goizez monitor baten ardurapean egoten dira, herriko bazterrak ikusi, jolas egin, etabar.

• Hondarririba Hiriko eskudoan, euskarazko orla jarriko da, honako titulu hauek agertuz: "**HONDARRIBIKO HIRI OSO PRESTU OSO LEIAL OSO ADORETSU ETA BETI OSO ZINTZOA**". Hala erabaki du Udalak apirilaren 30ko plenoan.

Komentario gisa hau esango genioke Udalari: lehendabizi "Zorionak!" euskarazko orla jarri behar duelako. Bigarren, lehendik euskarari buruz hartutako erabakia ea noiz betetzen dituen. Denok gaur dela zai.

• Azkenaldi honetan ez dakigu zer gertatzen ari den, baina **mundu guztiak etxebizitzak egin nahi ditu Hondarririban**. Udalen lizentzia eskabideak ari dira sartzen, han eta hemen villa unifamiliarak, duplexak, etabar egiteko.

Badirudi korporazioa aldatu aurretik nahi direla lortu baimenak.

Zezen Plazan ere zezenik ez, baina etxeak ikusiko ote ditugu? Asmo horiek dira behintzat. Baina... esaten dutenez, Zezen Plaza azpian herriko harresi edo muralia-ekin zerikusia duen estruktura edo aztarrak omen daude. Horregatik, ezer egiten hasi aurretik, Udalak azterketa egin beharko du, herriko historiarik puskak galdutako daitezkeen eskabedora eta kutxararen ondorioz. Azpian zer dagoen jakin dezagun, eta balio duena baldin bada, ez al da gorde eta zaindu beharko?

• Hondarririban dagoen villa politenetakoa botatzera doa. Komandantzia ondoan dagoen **MARLAXKA** etxeaz ari gara. Bidasoaren ertza aldatuta ederra hartuko du, batetik Hotel Carlos Vn egingo etxeekin, bestetik "Marlaxka" etxe polita ere desagerturik.

Lehen Butron Pasealekuko etxe xarmantak izan ziren espekulazioaren kulpa botata zirenak, halako pasealeku eder eta polita deseginaz. Halaxe doa aldatutako Hondarririba. Eta egiten diren etxe berriak erdiko balira, tirat, baina bat polita egin orduko, berrehun itsusi jasotzen dira. "**Museo de los Horrores**" en egoteko hobe lirateke kanpiña eta ez kanpiñak etxe asko. Udal berriak kriterio berriak ekar ditzala, bestela pikotara doa herriaren edertasuna.

Endaiara begiratzen dugu, eta dena zuri agertzen da. Endaiatik begiratzen dugu Hondarririba, eta iluna, beltza.

"**HONDARRIBIA**" aldizkarian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo, beza, edo bertara joan eta Euskaraz Azpitartzeaz galdetu. Baita, Korreo-setan Udalak duen posta kutxara [apartado de correosera] bidali idazlanak.